




# MORGA



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Armarri erdibitua: 1., orlegiz urrezko grifoa goinean urrezko leoi ranpantea daudala; 2., zilarrean, hiru zumar orri paluan.


## AITAMEN HISTORIKOA

Morgako Meakaur izeneko eleizatea, Uribeko merindadekoa. Gernikako Batzar Nagusietan ahaldun bat eukan, eta 58. eserlekua eta botua eukazan. Gerekizeko San Martin ermitan (Morgako Meakaur) erromatarren garaiko hilarri bi aurkitu ziran; horren arabera, Morgakoak dira Bizkaian aurkitu diran epigraferik zaharrenak, antza danez hilarri horreek IV. mendekoak dira eta. Ustez, Morgan bizi izan ziran Bizkaiko antzinako jaunak, eta haren palaziokoak ziran eleizatik iparralderantz 200 bat pausora aurkitu ziran hondakinak –1771n oraindik be han egozan–. Baina bada gehiago be: batzuen ustez, eta ezelango oinarri barik, Iñigo López Ezkerra Bizkaiko zortzigarren jauna, hantxe setiatu eban Manso López bere aitak, eta semeak aita hil ostein Meakaurreko San Martinen lurperatu eban. 1781ean eleizako zimentuetan gizon handi baten hazurrak eukazan kutxa bat aurkitu zan; ondo landutako harri zuri finagaz egindakoa zan, eta piezak ondo lotuta eukazan txoriopilkaz. Batzuen esanetan Manso Lópezen hilobia zan.

Itsasertzeko bidetik Santiagora joiazan erromesentzak pasabide izan zan Gernikatik Bilborako bidean. 1420aren iguruan gatazkak egon ziran Gerekiz, Bazkes de Meakaur eta Gorritiz leinukoen artean. Burrukak eleizateko basoetan eta Morgaondoko dorrean izan ziran.

## IKURRIÑA

Deskribapena: neurriak: 2:3; erdibitua, hagaren alde zuria eta hegala orlegia.



## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo partido: 1º, en campo de sinople un grifo de oro, surmontado de un león rampante de oro; 2º, de plata tres panelas de gules, puestas en palo.

## RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia denominada Meacaur de Morgia perteneciente a la merindad de Uribe. En las Juntas Generales de Gernika su apoderado ocupaba el asiento nº 58. El hallazgo de dos lápidas romanas en la ermita de San Esteban de Gerekiz (Meacaur de Morgia) coloca a Morgia en el primer lugar en lo relativo a epigrafía vizcaína ya que dichas lápidas parecen datar del s. IV de nuestra era. Se ha supuesto que pudo ser Morgia residencia de los antiguos señores

de Bizkaia, de cuyo palacio se creía que procedían unas ruinas, que aún existían

en 1771, a 200 pasos al N. de la parroquia. Añadíase, no se sabe con que fundamento, que allí fue sitiado Iñigo López Ezkerra, octavo señor de Bizkaia, por su padre Manso López, a quien mató aquél y le

hizo sepultar en San Martin de Meakaur,

y aún se creía que era su sepulcro una urna de piedra blanca y fina bien labrada y bien unidas sus piezas con sus goznes, y dentro la osamenta de un hombre de gran talla, que se halló en 1781 en los cimientos de esta iglesia.

Fue paso de peregrinos de Santiago de la Ruta Compostelana de la Costa, que los romeros encontraban en el itinerario de Gernika a Bilbao. Hubo turbulencias entre los linajes de Gerekiz, Bazkes de Meakaur y Gorritiz hacia 1420. Estas luchas se desarrollaron en el bosque de la anteiglesia y en la torre de Morgaondo.

## BANDERA

Descripción: de proporción 2:3, partida de blanco al asta y de verde el vuelo.